

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Penipe

HASERRE ASARREA DUT asarrea haserre zuzenduz okertu didatelako. Lertxundi, gorbeldi eta perretxiko asarreak, ikaragarri handiak, itzelak badira bazterretan, eta, India aldera bidaiatzeko aitzakia behar eta, duela hamar bat urte txoko honetantxe aipatu nuen pikondo bat ekarri nahi dut tartera. Garai hartan asarrea zen, zenbat hazi ote da, baina, hamar urte hauetan?

Bisita egin beharko diogu...

Bengalako pikondoa da, *Ficus benghalensis*. Pikondoa,



WAEI OMAR

Ezkerrean, Bengalako pikondoa (*Ficus benghalensis*). Azpian, ashoka (*Saraca asoca*).



NMPB.NIC.IN

Ficus generokoa delako, banyan zuhaitza deitzea ego-kiagoa litzateke, orde. Gandhiren ama hizkuntza izan zen gujaratiko hitza da banya, eta merkatari, trantante adierazten du, ez zuhaitza. Hirietako kale bazterretako zuhaitz hauen itzalpean egiten ziren tratuak, nonbait. Indian, Karnatakan, Bangalore aldameneko Ramohalli hiriko banya zuhaitz asarreari Dodda Alada Mara deitzen diote. Hona bera: 400 urte ba ote dituen aipatzen da eta 20.000 metro koa-droko itzala ematen omen du. Tratu galantak egin daitezke hor! Bere senide ezagunenetako bat Kanbodian bizi da, Angkor Wat tenpluko hormetako harritzarrak azpian hartuak dituenak. Zuhaitzak maitemina eta harriek bere minak bertan erreztatuko dituzte...

Indian, banya sakratua dute, baina gurtu, beste zuhaitz bat gurtzen dute. Ashoka zuhaitza, *Saraca asoca*, hostaia iraunkorra eta lore gorri usaintsuengatik baino gehiago bere izaeragatik da ezaguna. Literaturan, ohituretan, folklorean, erlijioan etxeko dute. Bere loraldiari lotutako jaiak ospatzen dira. Ugalkortasunaren adierazgarri dute hinduistek eta budistek, eta azken hauentzako ikus nagusietakoa da, Buda bera ashoka zuhaitz baten azpian erditua izan omen zen eta. Jainistek eta inguru haietako beste erlijioetakoek ere oparo gurtzen dute. Inguru haietako hizkuntzatan makina bat izen badu. Sanskritoan soilik hamasei, ashoka horietako bat. Ashoka honek mina edo pena ematen ez duena edo minik edo penarik gabekoa adierazten du. Penipeia.



JAKOBA ERREKONDO

Urgulgo amonak

Donostiako Urgulgo ibilbide batean platano (*Platanus x hispanica*) errenkada bat bada. Galantak. Koadrila ederra osatzen dute. Beren kai gaineko talatik zer ez ote dute ikusi amonok. Ibilbidea dotoretzeko, aspaldi, harresia eta haren gainean lorontziak jarri zituen bateren batek. Platanoak bereira, harresia azpian hartu eta lorontziak hankaz gora badoaz. Kontuz behintzat aulki horretan eseri, amonak indarrean dira eta...